

JOSE ECHEGARAY EIZAGIRRE



Euskaldunen-tzat ere atsegin aundia da gizon erneak egin dioten diosala José Echegaray Eizagirre jaunari, bere egunean.

Gizaldi ontako argidotarren beidatu guziak bere gnatu ditu, eta España osoak ipiñi dion aomenari, batu dira gañera Europa eta Amerikako agur doaidunak.

Madrid-en jayoa bada ere gizon naigarri au, bere ama zan azpeitiarra, euskal-jatorra, Gipuzkoakoa; bere aita jayoa izan arren Zaragoza-n zan euskal jatorrekoa ere, Gipuzkoa aldekoa nozki; bere izengañak ezin ukatu.

Argatik gaur euskaldunak goitutzen du bi aldiz orrenbeste izkribu eder-en egillea; goitutzen du gizon ernea, eta bere euskal izenak.

Gizon orren zañetan dago odol euskalduna; gañera, Echegaray-ri lenbiziko aldiz egin zioten itza izan zan euskara ¿nola ez? ¡bazan bere ama Azpeitiko alaba!

¡Echegaray Eizagirre! ¿Ez zera gogoratu iñoiz zure aurrekoak euskaldunak dirala?

Arzazu: or dijoa gizon aundi orrenzat, oroitz chik au; ar zazu, euskal mendietako aritz osto-etan bilduba euskaraz ipiñia, zure amak berak seaskan ikasi zuben izkuntzan.

MENDIZ-MENDI.

